ADINKERIA, ZAHARTZEARI ETA ERRETIROARI BURUZKO PERTZEPZIOAK

EUSKADIKO **55 URTEKO ETA GEHIAGOKO PERTSONEN BIZI BALDINTZEI** BURUZKO AZTERLANA 2020

Vitoria-Gasteiz, 2021

Argitaraldia:
1.a, 2021eko azaroa

Ale-kopurua:
100 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Aministrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:
www.euskadi.eus

Egiletza:
Matia Institutoak egina: Mª Ángeles Molina; Sara Marsillas.
Elena del Barrio (koordinazioa)

Diseinua eta Maketazioa:
Komunikazio Zuzendaritza
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Inprimaketa:
Grupo Delta Ediciones Digitales, S.L.

L.G.:
xxxx

Edukia

Aurkezpena 5

Helburuak 7

Txosten honen helburuak 8

Metodologia 9

Profil soziodemografikoa 10

Azterlan honetan erabilitako aldagaiak 12

Emaitzak 13

Zahartzaroaren autopertzepzioa 13

Zahartzaroarekiko kezka 13

Kezkatzeko arrazoiak 17

Zer adinekin jotzen da pertsona bat adinekotzat 19

Zahartzaroari buruzko estereotipoak eta adineko pertsonenganako tratua 22

Estereotipoak 22

Adinekoenganako tratuaren pertzepzioa 24

Erretiroari buruzko pertzepzioa 26

Norberaren erretiroari buruzko esperientziak 26

Balizko beste erretiro mota batzuk 31

Funtsezko mezuak 36

Aurkezpena

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko inkesta espezifiko bat egiteak aukera ematen dio Eusko Jaurlaritzari lurralde honetako adinekoen bizimoduari buruzko aurreko azterlanei jarraipena emateko. Aurreko azterlanak lagungarriak izan dira lurraldeko zahartze prozesuaren berezitasunetara egokitutako planak, proposamenak eta estrategiak lantzeko. Azterlan horietako lehena 1993an egin zen (Adinekoen Inkesta), 1994ko Gerontologia Plana egiteko. Bigarren azterlana 2010ean egin zen (EAEko adinekoei buruzko bizi baldintzei buruzko inkesta), eta dokumentu honen oinarri gisa erabili zen: «Zahartzen ari direnen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen. Ekintza plan baterako oinarriak», 2011koa. Horrelako azken azterketa 2014an egin zen, eta «Zahartze aktiboaren euskal estrategia 2015-2020» argitaratu zenean amaitu zen.

2020an egindako azterlana inkestaren hirugarren edizioa da, eta pertsona horien errealitatea ezagutzea ez ezik, etorkizuneko joerak eta premiak aztertzea ere ahalbidetzen du. Ezagutza hori lagungarria da Euskadin zahartze prozesuaren inguruko iraganeko politika publikoak ebaluatzeko eta etorkizunekoak diseinatzeko.

Azterlan honek hainbat txosten tematiko ditu emaitza gisa. Txosten horietan, zehatz-mehatz aztertzen dira 55 urteko eta gehiagoko pertsonen egungo egoera eta bilakaera euskal lurraldean, honako esparru hauek aintzat hartuta, besteak beste: osasuna, gizarte ehuna, parte hartzea, gogobetetzea eta bakardade sentimendua. Serieko ale honetan **adinkeria eta zahartzeari eta erretiroari buruzko pertzepzioak** aztertzen dira.

Helburuak

Bizi baldintzen azterketaren helburua da (BBA+55 2020) gizarte politiken planifikatzaileei eta arduradunei informazio zehatza eta puntuala ematea Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen familia bizitzaren, banakako bizitzaren eta bizi diren ingurunearen baldintzei buruz. Inkestaren bidez, halaber, lurraldeko adinekoen errealitatea sistematizatu eta zabaldu nahi da, biztanleria talde horri dagozkion hainbat alderdiri helduz.

Hauek dira BBA+55en helburu espezifikoak Euskadin:

- Adineko pertsonen eguneroko bizitzaren parte diren alderdi ugariren argazki eguneratu bat eskaintzea (baldintza materialak, osasun egoera, heziketa maila, astialdia, parte hartzea, gizarte harremanak, ingurunea eta abar).
- Alderdi horiek 2010. urteaz geroztik izan dituzten joerak eta bilakaeraren konparazio azterketa bat egitea.
- Euskadiko lurraldeen artean eta hiriburuen artean gai horien inguruan dauden aldeak ezagutzea.
- Biztanle talde horren premiak identifikatzea.

Hasieran planifikatutako helburu horiei 2020an gertatutako krisi egoeraren ondorioz honako hau gehitu zitzaien:

- COVID-19aren krisiak Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen eguneroko bizitzan izan duen inpaktua ezagutzea.

TXOSTEN HONEN HELBURUAK

Txosten honen helburu zehatza Euskadin bizi diren 55 urteko eta gehiagoko pertsonen zahartzaroaren irudi soziala aztertzea da.

Azterlanaren helburu espezifikoak honako hauek dira:

- Euskadin zahartzen ari diren pertsonen zahartzaroaren irudi sozialari eta erretiroari buruzko pertzepzioen argazki eguneratua eskaintzea.
- Adinekoen profilak identifikatzea, zahartzaroari buruz hautemandako irudiari eta erretiroari buruzko pertzepzioei dagokienez.
- Alderdi horiek 2010. urteaz geroztik izan dituzten joerak eta bilakaeraren konparazio azterketa bat egitea.

Metodologia

Hau da txostenaren oinarria: Euskadin familia etxebizitzetan bizi diren 55 urteko eta gehiagoko bi generoetako biztanleei egindako inkesta baten azterketa kuantitatiboa.

Laginketa ausazkoa izan zen, eremu geografikoaren, adinaren eta sexuaren arabera estratifikatua. Euskadiko hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan emaitza adierazgarriak lortzeko, azken lagina 2.753 elkarrizketakoa izan zen, eta honela banatu ziren:

3. taula. Laginaren azken banaketa, habitataren eta lurraldearen arabera, hiriburuetan gutxienez 400 elkarrizketa esleituta

GERUZA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
5.000 baino gutxiago	47	124	66	237
5.001 eta 20.000 artean	35	267	300	602
20.001 eta 50.000 artean	0	306	142	448
50.000 baino gehiago	0	199	67	266
Hiriburuak	400	400	400	1200
GUZTIRA	**482**	**1296**	**975**	**2753**

Informazioa biltzeko teknika telefono bidezko elkarrizketa izan zen, CATI sistema informatikoaren bidez egituratutako galdetegi batean oinarrituta. Landa lana 2020ko uztailean, abuztuan eta irailean egin zen.

Beste urte batzuekin alderatzeko azterketa egiteko, honako inkesta hauetako datuak erabili dira:

Urtea	Azterlana	Lagina
2010	Euskadiko 60 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko inkesta	Familia etxebizitzetan bizi ziren 60 urteko eta gehiagoko 1.207 pertsona
2014	Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko inkesta	Familia etxebizitzetan bizi ziren 55 urteko eta gehiagoko 2.469 pertsona

PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

2020ko bizi baldintzei buruzko azterlanean, EAEko etxeetan bizi diren 55 urtetik gorako 2.753 pertsonak hartu dute parte. Biztanleriaren lagin adierazgarri honen ezaugarriak taula honetan ikus daitezke:

Laginaren ezaugarriak

Generoa	Kop.	%
Gizona	1.233	% 44,7
Emakumea	1.527	% 55,3
Adina		
Batezbestekoa (DT)		70,3 (27,10)
55-64	1.066	% 38,6
65-79	1.144	% 41,5
80+	550	% 19,9
Egoera zibila		
Ezkongabea	366	13,3
Ezkonduta edo elkarrekin bizitzen	1.615	58,5
Banandua edo dibortziatua	171	6,2
Alarguna	602	21,8
ED/EDE	6	0,2
Hezkuntza maila		
Lehen mailakoak baino gutxiago	397	% 14,4
Lehen mailakoak	673	% 24,4
Bigarren mailakoak eta goi mailakoak	1.657	% 60
Beste batzuk	1	% 0,0
ED/EDE	32	% 1,2

Jarduerarekiko harremana		
Lanean	624	% 22,6
Erretiratua edo pentsioduna	1.769	% 64,1
Langabezian	104	% 3,8
Etxeko lanak	211	% 7,7
Beste batzuk	37	% 1,4
ED/EDE	14	% 0,5
Egoera ekonomikoa		
600 € baino gutxiago	59	% 2,1
601 eta 900 € artean	186	% 6,7
901 eta 1800 € artean	715	% 25,9
1800 € baino gehiago	1.127	% 40,9
Diru sarrerarik gabe	8	% 0,3
ED/EDE	664	% 24,0
Osasun egoera		
Oso ona + Ona	2.049	% 74,2
Erdipurdikoa	518	% 18,8
Txarra + Oso txarra	190	% 6,9
ED/EDE	3	% 0,1

AZTERLAN HONETAN ERABILITAKO ALDAGAIAK

Zahartzaroaren autopertzepzioa

Zahartzaroaren autopertzepzioa norberak zahartzaroari buruz duen irudia da. Hemen honako hauei buruzko informazioa jasotzen da: zahartzearen beraren gaineko kezka eta kezka horren arrazoiak; norberaren ustez zer adinetan jo daitekeen pertsona bat adinekotzat, eta adineko pertsona izatearen edo ez izatearen pertzepzio pertsonala.

Estereotipoak eta adineko pertsonenganako tratua

Adinekoei lotutako estereotipoak gizarte talde hori definitzeko erabiltzen diren 12 item positibo eta negatiboren bidez biltzen dira (adibidez: independenteak vs mendekoak; produktiboak vs ez-produktiboak). Horrela, elkarrizketatutako pertsonak aukeratu behar du adjektibo kontrajarrien artean zein den adinekoen taldea ondoen ordezkatzen duena. Atal honetan, gizarteak adinekoei ematen dien tratuari buruzko pertzepzioa ere aztertzen da.

Erretiroari buruzko pertzepzioa

Hemen erretiroaren beraren esperientziaz galdetzen da (zer adinetan erretiratu zen, erretiroaren esperientzia nolakoa izaten ari den eta erretiro denbora zertara bideratu behar den), eta beste erretiro modu posible batzuei buruzko iritzia aztertzen da (zer adinetan gustatuko litzaiokeen erretiroa hartzea, erretiratutako pertsonek lanean jarraitu nahiko zuketen, erretiro adina handitzeari eta lanaldia erretiro partzialarekin uztartzeko aukerari buruzko iritzia).

Emaitzak

Adinagatiko diskriminazioa XXI. mendeko erronkarik handienetakotzat jotzen da une honetan, eta are garrantzitsuagoa da COVID-19aren krisiaren ondoren.

Adinkeria da aurreiritziaren eta diskriminazioaren modurik ohikoenetako eta gizartean onartuenetako bat. Adinkeriaren definizio bakarra ez badago ere, pertsonen adinaren araberako estereotipo, aurreiritzi eta jarrera diskriminatzaileen multzo gisa ulertu ohi da. Aspalditik, hainbat ikerketak frogatu dute adinari buruzko estereotipo negatiboak barneratzeak eragin kaltegarria izan dezakeela pertsonen osasunean, baina baita gizartean eta ekonomian ere.

ZAHARTZAROAREN AUTOPERTZEPZIOA

Zahartzaroarekiko kezka

Euskadin, 55 urtetik gorako biztanleen % 66 kezkatuta dago zahartzaroarekin (% 32,8k dio kezka nahikoa edo handia duela). Hau da, hamar euskal herritarretik hiru zahartzearen beldur dira. Emakumeak gizonak baino gehiago kezkatzen dira, eta adin tarte horretako kohorte gazteak zaharrak baino gehiago. Hala, emakumeen % 33,6 oso edo nahiko kezkatuta dago bere zahartzearekin, gizonen % 31,8ren aldean, eta 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen % 38,9 dago kezkatuta, laurogeitaka urtekoen % 24ren aldean.

Sexuaren eta adinaren aldagaiak aldi berean aztertzean, antzeko joera ikusten da zahartzaroarekiko kezkari dagokionez: belaunaldi gazteenek (55-64 urte) kezka handiagoa adierazten dute; horien artean, emakumeak «handia» eta «zerbait» kategorietan kontzentratzen dira, eta gizonak «nahikoa» eta «gutxi» erantzunetan. Adinekoenen artean (80 urte eta gehiago), berriz, gizonek zein emakumeek neurri handiagoan erantzuten dute zahartzaroarekin batere kezkatuta ez daudela (gizonen % 52,6 eta emakumeen % 39,4).

Zahartzaroari buruzko kezkarekin lotutako beste aldagai batzuk honako hauek dira: egoera zibila —dibortziatutako edo banandutako pertsonak hein handiagoan daude oso edo nahiko kezkatuta—; hezkuntza maila —hezkuntza maila baxuenean daudenek (lehen mailako ikasketak baino beheragokoak) kezkatuta daudela diote neurri handiagoan—; eta egoera ekonomikoa —kezka handiagoa dago 1.800 eurotik beherako diru sarrerak jasotzen direnen artean—.

Aurkeztutako emaitzek, oro har hartuta, aldaketarekiko kezka adierazten dute, eta litekeena da iristear dagoenaren ziurgabetasunarekin zerikusia izatea. Horrela, adin aurreratuko pertsonak (80 urte eta gehiago), zahartzaroaren etapara heldu eta bertan urteak daramatzatenak, bizitzako etapa horretan finkatuta daude eta kezka gutxiagorekin bizi dute; gazteagoentzat (55-64 urte), berriz, zahartzaroa zalantzazkoa eta beldurgarria da, aldaketaren atarian baitaude.

Kontuan hartutako beste aldagai soziodemografikoen kasuan, aldaketaren eta ziurgabetasunaren hipotesia ere balia daiteke; adibidez, alargunen kasuan, haien egoera zibila aldatu egin baita ezkondutakoen aldean. Hezkuntza maila handiagoa eta egoera ekonomiko hobea izatea zahartzaroarekiko pertzepzio lasaiagoa (kezka gutxiago) izatearekin lotzen da.

Zahartzaroarekiko kezka, sexuaren, adinaren, egoera zibilaren eta egoera ekonomikoaren arabera

	Zahartzaroarekiko kezka						p
	Handia	Nahikoa	Zerbait	Gutxi	Ezer ez	ED/EDE	
GUZTIRA +55	11,4	21,4	18,8	14,4	30,3	3,8	
GUZTIRA +65	11,0	17,9	17,2	13,3	35,6	5,0	
Sexua							
Gizona	% 10,0	% 21,8	% 18,5	% 16,7	% 31,1	% 1,9	0,000
Emakumea	% 12,5	% 21,1	% 18,9	% 12,5	% 29,6	% 5,4	
Adin tarteak							
55 - 64 urte	% 12,0	% 26,9	% 21,2	% 16,0	% 21,8	% 2,1	
65 - 79 urte	% 10,9	% 20,4	% 19,3	% 14,4	% 31,6	% 3,4	0,000
80 edo gehiago	% 11,1	% 12,9	% 12,9	% 11,1	% 4 3,8	% 5,9	
Sexua eta adin tarteak							
Gizonak 55-64 urte	% 9,9	% 28,1	% 20,5	% 19,0	% 21,5	% 1,0	
Gizonak 65-79 urte	% 9,7	% 20,0	% 19,0	% 16,0	% 32,8	% 2,5	
Gizonak 80+ urte	% 10,4	% 9,4	% 11,5	% 13,0	% 52,6	% 3,1	0,000
Emakumeak 55-64 urte	% 14,0	% 25,6	% 21,8	% 13,5	% 22,2	% 2,9	
Emakumeak 65-79 urte	% 11,8	% 20,6	% 19,5	% 13,2	% 30,6	% 4,2	
Emakumeak 80+ urte	% 11,5	% 14,8	% 13,4	% 10,1	% 39,4	% 10,9	
Egoera zibila							
Ezkongabea	% 12,8	% 21,8	% 16,9	% 15,3	% 29,7	% 3,5	
Ezkondua	% 10,3	% 22,0	% 20,2	% 15,6	% 28,9	% 2,9	0,000
Banandua/ dibortziatua	% 13,5	% 24,1	% 22,4	% 15,9	% 22,9	% 1,2	
Alarguna	% 12,8	% 18,6	% 14,3	% 10,3	% 36,6	% 7,3	
Egoera ekonomikoa							
600 € baino gutxiago	% 21,7	% 16,7	% 13,3	% 10,0	% 38,3	% 0,0	
601 eta 900 € artean	% 14,5	% 15,6	% 19,4	% 10,2	% 36,6	% 3,8	
901 eta 1800 € artean	% 14,1	% 20,0	% 18,3	% 12,9	% 31,2	% 3,5	0,000
1800 € baino gehiago	% 9,7	% 24,0	% 20,9	% 17,7	% 26,0	% 1,7	
Diru sarrerarik gabe	% 12,5	% 12,5	% 12,5	% 12,5	% 25,0	% 37,5	

Zahartzaroarekiko estereotipo negatiboek adineko pertsonek beren zahartze prozesuarekiko jarrera negatiboak izatea eragiten dute, eta horrek, aldi berean, ondorioak izan ditzake, hainbat ikerketaren arabera: independentzia goiz galtzea, desgaitasun handiagoa eta depresio eta heriotza indize handiagoak. «Autobetetako profezia» deritzona da.

Azken hamarkadetan zahartzaroarekiko kezka aldatzen joan da 65 urteko eta gehiagoko pertsonen artean. Zahartzaroarekiko kezka mailarik handienak 2010ean egindako inkestan zeuden (% 32k nahikoa edo handia), 2014an bildutako datuetan behera egin zuten (% 26,8k nahikoa edo handia) eta 2020ko azterketan berriro gora egin zuten (% 28,9). Hazkunde horren arrazoi bat COVID-19aren krisiaren eskutik etor daiteke. 2020ko udan, adin taldearen araberako birusaren intzidentzia nabarmen handiagoa zen adineko pertsonengan, eta hedabideek errealitate hori jasotzen zuten, zahartzaroaren ikuspegi negatiboa eta patologikoa areagotuz, 70 urteko eta gehiagoko pertsona guztiak arrisku taldea zirela eta, hortaz, ahulak zirela jota. Agian testuinguru sanitario eta mediatiko horrek azalduko du zahartzaroarekiko kezkak gora egin izana 2020ko inkestan. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da nabarmentzea zahartzaroa ez dela adinekoen kezka nagusia; izan ere, gai hori aztertu den urte guztietan, gehiengoaren erantzuna «ezer ez» izan da: 2010ean % 23,7k erantzun zuen hori eta, 2014an, % 40,7k.

Zahartzaroarekiko kezka 65 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, 2010, 2014, 2020



Kezkatzeko arrazoiak

Kezka horren arrazoiak honako hauek dira: narriadura fisikoa, beste pertsona batzuen mende egon beharra eta narriadura intelektuala. Horrela, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 38,4k erantzun du zahartzaroak kezkatzen duela narriadura fisikoagatik (osasun egoera okerragoa, erakargarritasun txikiagoa, bere kabuz moldatu ezin izatea); % 20,6k laguntza behar izateko eta beste pertsona batzuen mende egoteko beldurragatik, eta % 19,5ek narriadura intelektualagatik (oroimena galtzea). Arrazoi horiek bat datoz normalean zahartzearekin lotutako estereotipo negatiboekin. Beste arrazoi minoritario batzuk hauek dira: erosteko ahalmenaren galera (% 4), jardueren erritmoaren jaitsiera (% 2,6), sare sozialaren galera (% 2,1) edo ziurgabetasuna (% 1). % 1etik behera daude kezkatzeko beste arrazoi batzuk, hala nola seme-alabak edo familia, heriotza edo egoitza batera joan beharra.

Nolanahi ere, hiru arrazoi nagusiek azaltzen dute zahartzaroarekiko kezka, adina edozein dela ere. Nabarmentzekoa da 55 eta 64 urte bitarteko taldean kezkatzeko arrazoi nagusiak bizi zikloan zehar gerora gerta litezkeenak direla (zahartze patologikoa eta mendekotasuna); aldiz, denboran ustez goizago gertatuko diren aldaketek (erosteko ahalmenaren galera, jarduera mailaren jaitsiera edo gizarte sarearen galera, laneko erretiroarekin oso lotuta dagoena) gutxiago kezkatzen dute.

Sexuak, adinak eta egoera ekonomikoak eredu bereizgarriak ezartzen dituzte zahartzaroari buruzko kezka horien pertzepzioan. Horrela, emakumeak gizonak baino gehiago kezkatzen dituzte narriadura intelektualak eta mendekotasunak; gazteenak (55 eta 79 urte bitartekoak), berriz, narriadura fisikoak eta mendekotasunak kezkatzen dituzte gehien.

Zahartzaroak kezka eragiteko arrazoiak, sexuaren eta adinaren arabera

	Zahartzaroak kezka eragiteko arrazoiak					p
	Narriadura fisikoa	p	Narriadura intelektuala	p	Mendeta-suna	
GUZTIRA +55	% 38,4		% 19,5		% 20,6	
GUZTIRA +65	% 37		% 18,3		% 20,3	
Sexua						
Gizona	% 45,4	0,364	% 37,5	0,000	% 35,9	0,000
Emakumea	% 54,6		% 62,5		% 64,1	
Edad en tramos						
55 - 64 urte	% 40,8		% 42,4		% 39,6	
65 - 79 urte	% 43,3	0,000	% 39,4	0,129	% 45,6	0,002
80 edo gehiago	% 15,9		% 18,2		% 14,8	
Adin tarteak						
Gizonak 55-64 urte	% 19,5		% 16,5		% 16	
Gizonak 65-79 urte	% 19,5		% 16,7		% 15,3	
Gizonak 80+ urte	% 4,6	0,001	% 4,3	0,000	% 4,7	0,000
Emakumeak 55-64 urte	% 21,3		% 26,0		% 23,7	
Emakumeak 65-79 urte	% 23,9		% 22,6		% 30,4	
Emakumeak 80+ urte	% 11,2		% 13,9		% 10,0	

2014ko inkestarekin egindako konparazioan, zahartzaroari buruzko kezkak berdinak dira oraindik ere. Erantzun maiztasun gehienak oso antzekoak badira ere, 2020an narriadura fisikoarekiko kezkak gora egin du, 2014an % 33,8 izatetik 2020an % 37,5 izatera igaro baita. Lehen esan bezala, 2020ko inkesta urte horretako udan egin zen, osasun krisi betean. Une horretan, 70 urtetik gorakoak arrisku taldekotzat jotzen ziren, eta diskurtso orokorrak zahartzaroaren ikuspegi partziala zuen, begirada patologiko batetik.

Zahartzaroak kezka eragiteko arrazoi nagusiak adinaren arabera, 2014 eta 2020

	Kezkatzeko arrazoiak					
	Narriadura fisikoa		Mendetasuna		Narriadura intelektuala	
	2014	2020	2014	2020	2014	2020
Adin tarteak						
55 - 64 urte	% 32	% 40,6	% 21,5	% 21,1	% 24,4	% 21,4
65 - 79 urte	% 34	% 40,1	% 22,9	% 22,7	% 20,5	% 18,5
80 edo gehiago	% 27,8	% 30,6	% 13,1	% 15,3	% 15	% 17,8

Zahartzaroak 55 urteko eta gehiagoko pertsonei kezka eragiteko arrazoi nagusiak, 2014 eta 2020



Zer adinekin jotzen da pertsona bat adinekotzat

Tradizionalki, erretiro adina hartu izan da zahartzaroaren hasieratzat. Bizitzako etapa horretara iritsi diren pertsonei hainbat modutara deitzen zaie: adinekoak, zaharrak edo edadetuak; horiek guztiek 65 urte bete dituzten pertsonei egingo liekete erreferentzia. Hala ere, irizpide kronologiko horren baliozkotasuna zalantzan jartzen da bai foro zientifikoetatik, bai pertsonen ikuspegitik. Horren isla dira honako galdera hau egiterakoan jasotako erantzunak: Zer adinetatik aurrera

uste duzu, oro har, esan dezakegula norbait «adineko pertsona» bat dela? Lortutako emaitzek erakusten dute Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 40,5ek uste duela izaera hori ez dagoela adinaren mende. Bereziki nabarmentzekoa da erantzuna espontaneoa delako, inkestatzaileek ez baitzuten erantzun aukera gisa irakurtzen. Bestalde, % 24,5entzat pertsona bat adinekoa da 80 urtetik aurrera; % 22,5entzat 70 urtetik aurrera eta % 7,2rentzat 60 urtetik aurrera (% 4,7rentzat 65 urtetik aurrera).

Gainera, aldeak daude erantzunetan, generoaren eta adinaren arabera. Hala, gizon gehienek 60 eta 70 urte bitartean kokatzen dute zahartzaroaren hasiera, eta emakumeak gehiago aukeratzen dute 80 urtetik gorako tartea. Berdin gertatzen da adinarekin. Kohorte gazteeneko pertsonek (55 eta 64 urte bitartekoek) 60 eta 70 urte bitartean kokatzen dute gehienbat, eta adin handiagokoek, berriz, 80 urtetik aurrera, edo, bestela, ez dagoela adinaren mende erantzuten dute.

Pertsona bat adinekotzat zer adinekin jotzen den, adinaren eta sexuaren arabera

	Zer adinetik aurrera jo daiteke pertsona bat adinekotzat							p
	60 urtetik aurrera	65 urtetik aurrera	70 urtetik aurrera	80 urtetik aurrera	Ez dago adinaren mende	ED	EDE	
GUZTIRA +55	**% 2,5**	**% 4,7**	**% 22,5**	**% 24,5**	**% 40,5**	**% 4,4**	**% 1,1**	
Sexo								
Gizona	% 3,1	% 5,8	% 25,1	% 22,9	% 39,3	%3,2	%0,6	0,000
Emakumea	% 2,0	% 3,7	% 20,4	% 25,7	% 41,5	% 5,2	% 1,4	
Adin tarteak								
55 - 64 urte	% 4,4	% 6,1	% 28,4	% 24,6	% 34,4	% 1,8	% 0,4	
65 - 79 urte	% 1,3	% 4,9	% 20,0	% 23,1	% 45,2	% 4,1	% 1,3	0,000
80 urte edo gehiago	% 1,1	% 1,6	% 15,8	% 27,1	% 42,6	% 9,8	% 1,8	
Sexo y edad en tramos								
Gizonak 55-64 urte	% 5,8	% 8,9	%3 0	% 19,6	% 34,3	% 1,2	% 0,2	
Gizonak 65-79 urte	% 1,0	% 4,8	% 23,6	% 23,2	% 43,2	% 3,4	% 0,8	
Gizonak 80+ urte	% 1,6	% 1,0	% 15,5	% 31,1	% 42,0	% 8,3	% 0,5	
Emakumeak 55-64 urte	% 2,9	% 3,5	% 26,9	% 29,3	% 34,5	% 2,4	% 0,5	0,000
Emakumeak 65-79 urte	% 1,6	% 5,0	% 17,1	% 23	% 46,7	% 4,8	% 1,8	
Emakumeak 80+ urte	% 1,1	% 2,0	% 16,0	% 24,9	% 43,1	% 10,6	% 2,2	

Beren burua «adineko pertsonatzat» jotzen duten galdetzean, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 66,3k «ezetz» erantzun du. Galdera horretan ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean; bai, ordea, adin taldeen arabera: 80 urteko eta gehiagoko pertsonek gehiago esaten dute «bai» (% 71,6); 55 eta 64 urte arteko kohorteak, berriz, «ez» erantzun du gehienbat (% 88,9). Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa da laurogei urtetik gorakoen % 26k ez duela bere burua ikusten «adineko pertsonaren» etiketapean.

Adinekotzat joten du bere burua, adinaren arabera



ZAHARTZAROARI BURUZKO ESTEREOTIPOAK ETA ADINEKO PERTSONENGANAKO TRATUA

Estereotipoak

Estereotipoa talde jakin baten irudi soziala da, kasu honetan, adineko pertsonena. Askotan, talde estereotipatuari buruzko orokortzeetan zentraturiko sinplifikazio mentalak izaten dira. Estereotipoek dimentsio negatiboa eta positiboa dute; hala, talde estereotipatuan ezaugarri kontrajarriak antzeman daitezke.

Euskadiko 55 urtetik gorako biztanleen artean, adinekoei buruzko irudi negatiboa da nagusi; hala, aurkeztutako adjektibo positibo-negatiboen hamabi pareetatik zazpitan ohikoagoa da adjektibo negatiboa aukeratzea. Osasuna (mendekoak, gaixoberak, hauskorrak, sexualki inaktiboak) eta parte hartzea (ez-produktiboak, herritar pasiboak) irudi negatiboarekin lotzen dira; izaera (toleranteak, ez-gatazkatsuak, gizartekoiak) eta segurtasuna (integratuak, babestuak), berriz, irudi positiboarekin.

Estereotipo negatiboen artean honako hauek nabarmentzen dira: Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 84,5entzat, adineko pertsonak kontserbadoreak dira; % 77,1ek uste du ez direla sexualki aktiboak; % 69,8k uste du mendekoak direla; % 64,9k uste du pertsona ez-produktiboak direla; % 57,5ek ahulak direla; % 55,8k gaixoberak direla, eta % 54,4k herritar ez-aktiboak direla.

Adineko pertsonekin loturiko estereotipo negatiboak

Kontrako aldean, pertsona horien % 85,8rentzat adineko pertsonak ez dira gatazkatsuak, % 79,8rentzat gizartekoiak dira, % 73,2rentzat integratuta daude, % 55,7rentzat babestuta daude eta % 55,4k uste du adinekoak toleranteak direla.



Adineko pertsonekin loturiko estereotipo positiboak



Adjektibo pare gehienetan ez dago alderik generoaren eta adinaren arabera; hala ere, adjektibo batzuei dagokienez, emakumeek zahartzaroari buruz duten irudia are negatiboagoa da. Honako adjektibo hauekin gertatzen da hori: intoleranteak, babesgabeak, sexualki inaktiboak, eta pertsona gatazkatsuak. Aldiz, emakumeek gizonek baino neurri handiagoan ikusten dute zahartzaroa emankorragoa dela.

Adinari dagokionez, 80 urteko eta gehiagokoen taldean, aukera negatibo gehiago kontzentratzen dira honako ezaugarri hauetan: sexu jarduerarik eza, baztertutako pertsonak eta gatazkatsuak. Kohorterik gazteenek (55-64 urte), beste adin taldeekin alderatuta, neurri handiagoan hautatzen dituzte «gaixobera» izatearekin loturiko adjektiboak (vs osasuntsuak).

Adinekoenganako tratuaren pertzepzioa

Adinekoenganako diskriminazioa gertatzen da adinagatik haiekiko portaera desberdinak agertzen direnean. Egindako inkestan alderdi hori ikertu nahi izan zen, gizarteak adineko pertsonekiko duen jokabidea nola hautematen den galdetuta.

Euskadiko 55 urtetik gorako biztanleek pertzepzio zatitua dute fenomeno horri buruz. Hala, % 35,2k esan du tratu ona jasotzen dutela, eta antzeko

ehuneko batek, % 30,8k, erantzun du tratu txarra jasotzen dutela; % 22,3k uste du ez dagoela desberdintasunik gainerako pertsonekin alderatuta.

Gizonek neurri handiagoan antzematen dute tratu ona adineko pertsonekiko, eta belaunaldi gazteagoek (55-64 urte) tratu txarra.

Gizarteak adineko pertsonei ematen dien tratuari buruz duen pertzepzioa, sexuaren eta adinaren arabera

	Adinekoenganako tratuaren pertzepzioa				
	Ondo tratatzen dituzte	Berdin tratatzen dituzte	Gaizki tratatzen dituzte	ED/EDE	p
Guztira +55	% 35,2	% 22,3	% 30,8	% 11,8	
Guztira +65	% 36,9	% 20,7	% 27,6	% 14,8	
Sexua					
Gizona	% 37,7	% 23,5	% 30,4	% 8,5	0,000
Emakumea	% 33,1	% 21,3	% 31,0	% 14,5	
Adin tarteak					
55-64 urte	% 32,5	% 24,7	% 35,7	% 7,1	
65-79 urte	% 36,1	% 22,9	% 29	% 12	0,000
80 urte edo gehiago	% 38,4	% 16,2	% 24,7	% 20,7	
Sexua eta adin tarteak					
Gizonak 55-64 urte	% 33,0	% 27,0	% 35,7	% 4,3	
Gizonak 65-79 urte	% 39,9	% 22,7	% 28,1	% 9,4	
Gizonak 80+ urte	% 44,0	% 16,1	% 22,8	% 17,1	0,000
Emakumeak 55-64 urte	% 32,0	% 22,5	% 35,8	% 9,6	
Emakumeak 65-79 urte	% 33,0	% 23,1	% 29,9	% 14,1	
Emakumeak 80+ urte	% 35,3	% 16,2	% 25,8	% 22,7	

2010. urtean egindako inkestarekin alderatuta, ikusten da aldaketa nabarmena izan dela adinekoek jasotzen duten tratuaren pertzepzioan; izan ere, nabarmen igo da tratu txarren pertzepzioa: 2010ean, 65 urteko eta gehiagoko pertsonen % 9,7k uste zuen gizarteak gaizki tratatzen dituela adineko pertsonak, eta 2020an, berriz, % 27,6k erantzun du hori. Emaitza horiek lotuta egon daitezke COVID-19aren ondoriozko osasun krisiak adineko pertsonengan izan duen inpaktu handiarekin eta testuinguru horretan jasandako diskriminazio egoerekin.

Gizarteak adinekoei ematen dien tratuari buruzko pertzepzioaren bilakaera, 2010 eta 2020.



ERRETIROARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Norberaren erretiroari buruzko esperientziak

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 64,1 erretiro egoeran dago. Pertsona horien batez besteko erretiro adina 61,7 urtekoa da, eta ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean, baina bai adin tarteen arabera. 55-65 urte bitarteko pertsonek 65 urtetik gorakoek baino batez besteko adin txikiagoan hartu dute erretiroa: lehenengoek 60 urte bete aurretik eta bigarrenek 60 urte bete ostean. Sexuaren eta adinaren azterketa konbinatuak emaitza bera erakusten du: 55-65 urte bitarteko gizonek eta emakumeek 65 urtetik gorako gizonek eta emakumeek hartu zutena baino lehenago hartzen dute erretiroa. Lehenengo adin taldekoek 59 urte inguruan, batez beste, eta bigarren adin taldekoek 62 eta 63 artean, batez beste. Balio modala (laginean gehien errepikatzen den adina) 65 urtekoa da erretiro adinari dagokionez.

Euskadiko adinekoen % 5,5ek lanean jarraitu zuen 65 urtetik aurrera, eta batzuek lan bizitza 88 urtera arte luzatu zuten.

Erretiratzeko adina sexuaren eta adinaren arabera

	Batez besteko erretiro adina	p
Guztira +55	61,69	
Guztira +65	62,68	
Sexua		
Gizona	61,68	0,967
Emakumea	61,69	
Adin tarteak		
55-64 urte	59,18	0,000
65-79 urte	62,09	
80 urte edo gehiago	62,84	
Sexua eta adin tarteak		
Gizonak 55-64 urte	58,66	0,000
Gizonak 65-79 urte	62,20	
Gizonak 80+ urte	62,83	
Emakumeak 55-64 urte	59,87	
Emakumeak 65-79 urte	61,94	
Emakumeak 80+ urte	61,69	

Erretiroak aldaketa garrantzitsuak dakartza pertsonen bizitzan: aldaketak eguneroko errutinan, denboraren okupazioan, harreman sozialetan... Horren aurrean, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 68k uste du erretiroa etapa positiboa dela, % 26,1ek dio beste etapa bat dela, sentsazio berezirik gabe, eta % 2,5ek soilik hartzen du etapa negatibotzat. Ez dago alderik erretiroa ulertzeko modu horretan gizonen eta emakumeen artean, baina bai adin taldeen arabera: 55 eta 65 urte bitarteko pertsona gehiagok ikusten dute erretiroa etapa negatibo gisa, 65 eta 79 urteko gehiagok etapa positibo gisa eta 80 urteko eta hortik gorako gehiagok sentsazio berezirik gabeko etapa gisa.

Erretiroaren etaparen pertzepzioa sexuaren eta adinaren arabera

	Erretiroaren etaparen pertzepzioa				
	Etapa positiboa	Beste etapa bat	Etapa negatiboa	ED/ EDE	p
Guztira +55	% 68	% 26,1	% 3,4		
Sexua					
Gizona	% 66,8	% 27,6	% 3,2	% 2,4	0,507
Emakumea	% 69,7	% 23,9	% 3,7	% 2,6	
Adin tarteak					
55-64 urte	% 66,9	% 26,4	% 5,8	% 0,8	
65-79 urte	% 71,4	% 23,3	% 2,6	% 2,7	0,000
80 urte edo gehiago	% 59,6	% 33,5	% 3,6	% 3,3	

Gai horren bilakaerari buruzko datuek erretiro etaparen errebalorizazioa erakusten dute; izan ere, erretiroa etapa negatibotzat hartzen dutenen kopuruak behera egin du, eta erretiroa etapa positibotzat hartzean dutenenak gora egin du nabarmen. Ziur aski, horrek zerikusia izango du metatzen joan diren belaunaldi irabaziekin; gaur egun, erretiroaren etapa hasten duten pertsonek aukera izan dute hezkuntza maila altuagoak lortzeko, lanbide kualifikatuak izan dituzte, posizio sozioekonomiko hobea dute eta bizitzako etapa hori ongizate eta gozamen itxaropenekin hasteko egoera fisiko eta psikologiko onak dituzte.

Erretiroaren etapari buruzko iritziaren bilakaera, 2010-2020



Inkestaren emaitzen arabera, erretiro garaia honako hauei lotuta dago gehienbat: aisialdia eta zaletasunak (% 59,8), familia eta lagunak (% 36), atsedena (% 20,5) eta ikaskuntza (% 14,4). Beste pertsona batzuek, gutxiengoa izan arren (% 6 edo gutxiago), uste dute erretiroa gizarteari ekarpena egiteko denbora ere badela, esaterako boluntariotzaren bidez (% 6,2), edo lan bizitzan eskuratutako ezagutzaren bidez (% 4,2); horrez gain, bizitzea/gozatzea (% 5,1), nork bere buruari denbora eskaintzea (% 1,6) eta bidaiatzea (% 0,6) ere aipatu dituzte Euskadiko 55 urtetik gorako pertsonek erretiroan denbora eskaintzeko moduko esperientzia gisa.

Erretiro denboraren erabileran profil ezberdinak daude, aldagai batzuen arabera. Generoari dagokionez, emakumeek nahiago dute atsedena, eta gizonek, aldiz, zaletasunei eskaini nahi diete denbora hori. Adinari dagokionez, belaunaldi gazteenek (55 eta 64 urte bitartekoek) uste dute erretiro denbora ikaskuntzari eta zaletasunei eskaini behar zaiela; belaunaldi zaharrenek (80 urte eta gehiago dituztenek), berriz, nahiago dute denbora hori atsedenari eta gizarte harremanei (familia eta lagunak) eskaini. Sexuaren eta adinaren arteko gurutzaketan ikus daitekeenez, 55 eta 64 urte bitarteko adin taldean, gizonek beren zaletasunetan jardutearen alde egiten dute; emakumeek, berriz, nahiago lukete ikaskuntza jardueretan parte hartu; tarteko belaunaldian, 65 eta 79 urte bitartekoek, eta ziurrenik erretiro denbora hasiberri dutenek, atsedenaldia aukeratzen dute gehienbat; 80 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, berriz, bai gizonek bai emakumeek denbora hori gizarte harremanetarako erabiltzearen alde egiten dute.

Azterketa horretatik argi eta garbi bereizitako bi profil eratortzen dira; batetik, profil gazteago bat (55 eta 79 urte artekoa), erretiro denbora modu aktiboagoan hautematen duena, zaletasunak gozatzeari lotuta eta ikasteko aukerak bilatzen dituena. Bestalde, adinez nagusiagoa den profilak (65 eta 80 urte artekoa), erretiro denbora atsedenarekin eta familiarekiko eta lagunekiko gizarte harremanekin lotzen du. Bi profil horiek parte hartzeko zerbitzu eta espazio desberdinak eskatuko dituzte, eta aditzera ematen dute 55 urtetik gorako pertsonei zuzendutako baliabideak planifikatzeko beharra dagoela, haien heterogeneotasun handia kontuan hartuta.

Zertarako erabili erretiro denbora, sexuaren eta adinaren arabera

	Zertarako erabili erretiro denbora							
	Zaletasunak	p	Gizarte harremanak	p	Atsedena	p	Ikastea	p
Guztira +55	% 59,8		% 36		% 20,5		% 14,4	
Guztira +65	% 59,7		% 38,5		% 20,8		% 13,7	
Sexua								
Gizona	% 62,3	0,000	% 35,1	0,397	% 18,1	0,005	% 13,3	0,000
Emakumea	% 57,7		% 36,7		% 22,4		% 15,3	
Adin tarteak								
55 - 64 urte	% 62,8	0,000	% 30,7	0,000	% 17,7	0,010	% 16,7	0,000
65 - 79 urte	% 60,6		% 37,5		% 21,6		% 14,8	
80 urte do gehiago	% 52,2		% 43,1		% 23,6		% 9,1	
Sexua eta adin tarteak								
Gizonak 55-64 urte	% 63,7	0,000	% 28,9	0,000	% 17,8	0,001	% 15,3	0,000
Gizonak 65-79 urte	% 63,5		% 38,2		% 18,9		% 13,5	
Gizonak 80+ urte	% 55,4		% 43,5		% 17,1		% 7,3	
Emakumeak 55-64 urte	% 61,9		% 32,5		% 17,6		% 18,0	
Emakumeak 65-79 urte	% 58,2		% 36,9		% 24		% 15,8	
Emakumeak 80+ urte	% 50,4		% 42,9		% 27,2		% 10,1	

2014ko inkestako datuak 2020koekin alderatuta, bilakaeraren emaitzetan argi ikusten da belaunaldi berriek gero eta gogo handiagoa dutela erretiro aktiboagoa izateko eta zaletasunetara eta ikaskuntzara bideratutako jarduerak egiteko. Horrela, murriztu egiten da erretiroa atsedenari eta gizarte harremanei eskaintzeko denboratzat hartzen dutenen kopurua.

Erretiro denbora zertara bideratu behar den: bilakaera, 2014-2020



Balizko beste erretiro mota batzuk

Azken urteotan indarra hartzen ari da lan bizitzan denbora gehiago jarraitzeko joera soziala, honako faktore hauek direla eta: urte gehiago bizitzea; erretiroa hartzeko adinera bizi, buru eta gizarte baldintza onetan iristea; hezkuntza maila handiagoa izatea, eta lanpostu kualifikatuak betetzea. Oraindik gutxiengo batek baino ez du babesten aukera hori, baina nazioarteko zenbait erakunderen babesa dauka, ikusten baitute bideragarria eta onuragarria dela adinekoen lan indarrak ematen duen giza kapitalari atxikitzea. Hala ere, neurri horrek ez du onarpen handirik herritarren artean. Beraz, beste aukera batzuk planteatzen dira, adinekoen esperientzia eta balioa ez galtzeko haiek lan mundutik ateratzen direnean. Gauzak horrela, interesgarria da aztertzea zer iritzi duten 55 urtetik gorako pertsonek Euskadin.

Hona hemen: erretiratuen % 29,7ri lanean jarraitzea gustatuko zitzaiokeen, eta % 12ri 65 urtetik gorako adinarekin erretiratzea. Erretiroa zer adinekin hartu nahi izango zuketen galdetuta, 66 urtetik 100 urtera bitarteko adinak aipatzen dira erantzunetan. Askotariko erantzunek agerian utzi dute gai horren inguruan dagoen polaritatea; hala, lanean urtebete baino gehiago geratuko ez liratekeen pertsonak aurkitu ditugu, baina baita lanbidea ahalik eta gehien luzatuko luketenak ere (100 urtera arte). Emaitza horietan ez zen generoen arteko desberdintasunik aurkitu, baina bai adin tarteen artekoak. Hala, laurogei urtetik gorako pertsonen % 37,5i lanean jarraitzea gustatuko zitzaiokeen.

Lan bizitza luzatzeari buruzko adostasun maila, sexuaren eta adinaren arabera

	Erretiratuei lanean jarraitzea gustatuko zitzaiekeen			
	Bai	Ez	ED/EDE	p
Guztira + 65	% 29,7	% 66,4	% 3,9	
Sexua				
Gizona	% 30,2	% 65,8	% 4	0,855
Emakumea	% 29	% 67,3	% 3,7	
Adin tarteak				
55-64 urte	% 28,9	% 69,8	% 1,2	0,000
65-79 urte	% 27,2	% 68,8	% 4,1	
80 edo gehiago	% 37,5	% 56,4	% 6,2	

Hala ere, erretiro adinaren igoera normalizatzeari buruz galdetzen zaienean, % 18,2 baino ez dago ados (% 2,1 erabat ados), eta % 62,7, berriz, ez dago ados (% 28,6 erabat desados). Aldeak daude gizonen eta emakumeen artean: neurri horri babes handiagoa ematen diote gizonek; eta adin taldeen arabera, neurri horri babes handiagoa ematen diote erretiro adina gainditzen duten taldeek (65-80 urte eta gehiago). Zehazki, 65 eta 80 urte bitarteko eta gehiagoko gizonak neurri horrekin ados daude gehienbat, eta 55 eta 64 urte bitarteko gizonak eta emakumeak, berriz, irmoago daude erretiro adina atzeratzearen aurka (erabat desados).

Erretiro adina atzeratzearekiko adostasun maila, sexuaren eta adinaren arabera

	Incrementar la edad de jubilación					p
	Erabat	Gustatuko litzaidake	Ez litzaidake gustatuko	Ez litzaidake batere gustatuko	ED/ EDE	
Guztira + 55 urte	% 2,1	% 16,1	% 34,1	% 28,6	% 19	
Guztira + 65	% 2,4	% 19,1	% 31,7	% 22,4	% 24,4	
Sexua						
Gizona	% 3,6	% 18,1	% 35	% 27,7	% 15,7	0,000
Emakumea	% 1	% 14,4	% 33,4	% 29,5	% 21,8	
Adina						
55-64 urte	% 1,8	% 11,2	% 37,9	% 38,5	% 10,6	
65-79 urte	% 2,7	% 18,3	% 34,3	% 23,8	% 21	0,000
80 edo gehiago	% 1,8	% 20,7	% 26,4	% 19,6	% 31,5	
Sexua eta adin tartea						
Gizonak 55-64 urte	% 2,3	% 13,0	% 37,5	% 38,1	% 9,1	
Gizonak 65-79 urte	% 4,6	% 21,9	% 34,5	% 21,0	% 17,9	
Gizonak 80 urte eta gehiago	% 4,1	% 21,1	% 29,9	% 18,0	% 26,8	
Emakumeak 55-64 urte	% 1,3	% 9,6	% 38,2	% 38,9	% 12,0	0,000
Emakumeak 65-79 urte	% 1,1	% 15,1	% 34,1	% 26,1	% 23,5	
Emakumeak 80 urte eta gehiago	% 0,3	% 20,7	% 24,6	% 20,7	% 33,8	

Datu horien arabera, uler liteke norberak erabakitzeko askatasunaren eta malgutasunaren alde egiten dela, hala nahi duenak lan merkatuan jarraitu ahal izan dezan, baina ez arau baten bidez behartuta.

Aurrekoaren ildotik, lanaldia malgutzeari eta erretiroaren ordez pentsio partzial batekin osatzeari dagokionez adostasun handiagoa ikusten da. Horrela, % 40,4ri lanaldia malgutzea gustatuko litzaioke. Hala ere, ez da gehiengoaren adostasunik lortu: % 33,6k ez luke nahi hori, eta % 26k ez daki edo ez du erantzun.

Lana eta erretiroa uztartzearen inguruko adostasun maila

	Lana eta pentsio partziala uztartzea					
	Asko gustatuko litzaidake	Gustatuko litzaidake	Ez litzaidake gustatuko	Ez litzaidake batere gustatuko	ED/EDE	p
Guztira + 55 urte	% 8,7	% 31,7	% 21,0	% 12,6	% 26	
Guztira + 65	% 7,1	% 29,7	% 19,4	% 10,3	% 33,5	
Sexua						
Gizona	% 10,6	% 32,7	% 23,3	% 14,1	% 19,2	0,000
Emakumea	% 7,1	% 30,8	% 19,1	% 11,5	% 31,5	
Adina						
55-64 urte	% 11,2	% 34,7	% 23,5	% 16,4	% 14,2	
65-79 urte	% 8,2	% 34,4	% 20,7	% 11,5	% 25,3	0,000
80 edo gehiago	% 4,9	% 20,0	% 16,6	% 7,8	% 14,7	
Sexua eta adin tartea						
Gizonak 55-64 urte	% 13,2	% 32,6	% 23,6	% 16,7	% 14,0	
Gizonak 65-79 urte	% 10,7	% 35,1	% 24,8	% 11,6	% 17,7	
Gizonak 80 urte eta gehiago	% 4,1	% 26,4	% 18,1	% 14,0	% 37,3	
Emakumeak 55-64 urte	% 9,3	% 36,7	% 23,4	% 16,2	% 14,5	0,000
Emakumeak 65-79 urte	% 6,1	% 33,7	% 17,2	% 11,4	% 31,6	
Emakumeak 80 urte eta gehiago	% 5,6	% 16,8	% 15,7	% 4,2	% 57,7	

Gai horiek berak aztertu ziren 2014an egindako inkestan ere. Orduan, % 34,3k adierazi zuen lan bizitza luzatzea gustatuko zitzaiokeela. Erretiroa zer adinekin hartu nahi izango zuketen galdetuta, batez beste 68 urterekin erantzun zuten (gehienez 99 urte). Erretiroari buruzko araudiari dagokionez, 55 urtetik gorako pertsonen % 8k babesten zuen erretiro adina atzeratzea (% 1,6k erabat), eta % 15,8k, berriz, erretiro partziala malgutzea proposatzen zuen eta pentsio osagarri bat jasotzea. Horrela, bilakaerak aldaketa handia erakusten du, erretiro adina handitzeko eta lana eta erretiroa bateragarri egiteko formula malguak ahalbidetzeko babes handiago baterantz.

Hainbat erretiro motarekiko adostasun mailaren bilakaera 2010-2020



Funtsezko Mezuak

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen erdia baino gehiago kezkatuta dago zahartzaroaz. Profil nagusia: lanean ari diren emakumeak eta gazteak (55 eta 64 urte bitartekoak). Hezkuntza maila handiagoa eta egoera ekonomiko hobea izatea, berriz, lagungarri dira zahartzaroari kezka gutxiagorekin aurre egiteko.

Hauek dira zahartzaroaren inguruko kezka nagusiak:

- % 38,4: narriadura fisikoa (osasun egoera okerragoa, erakargarritasun txikiagoa, nor bere kabuz moldatu ezin izatea).
- % 20,6: laguntza behar izatea eta beste pertsona batzuen mende egon behar izatea.
- % 19,5: narriadura intelektuala (memoria galtzea).

Euskadiko 55 urtetik gorakoek zalantzan jartzen duten pertsona bat adinekotzat jotzeko irizpide kronologikoaren baliozkotasuna; izan ere, pertsona horien ia erdiek adierazten dute ez dagoela adinaren mende.

- % 40,5: ez dago adinaren mende.
- % 24,5: pertsona bat adinekoa da 80 urte bete ondoren.
- % 22,5: pertsona bat adinekoa da 70 urte bete ondoren.

Euskadiko 55 urtetik gorako biztanleen artean adinekoen inguruko irudi negatiboa da nagusi. Osasuna (mendekoak, gaixoberak, hauskorrak, sexualki inaktiboak) eta parte hartzea (ez-produktiboak, herritar pasiboak) irudi negatiboarekin lotzen dira; izaera (toleranteak, ez-gatazkatsuak, gizartekoiak) eta segurtasuna (integratuak, babestuak), berriz, irudi positiboarekin.

Nabarmen handitu da gizarteak adineko pertsonak gaizki tratatzen dituen pertzepzioa, 2010eko emaitzekin alderatuta. Gaur egun, 10 pertsonatik 3k adierazi dute gizarteak gaizki tratatzen dituela adineko pertsonak (10etik 1ek 2010ean).

Emaitzak beste urte batzuetakoekin alderatuz gero, erretiro etaparen errebalorizazioa ikusten da, eta gora egin du erretiroa etapa positibotzat jotzen duten pertsonen kopuruak.

Erretiratuen bi profil bereizten dira:

- Profil gazteago bat (55 eta 79 urte artekoa), erretiro garaia modu aktiboagoan hautematen duena, zaletasunak gozatzeari lotuta, eta ikasteko aukerak bilatzen dituena.
- Profil zaharrago bat (65 eta 80 urte artekoa), erretiro garaia atsedenarekin eta familiarekiko eta lagunekiko gizarte harremanekin lotzen duena.

Erretiroari dagokionez, gehienbat erabaki pertsonala babesten da: erretiro adina arau gisa mantenduta, baina lanean jarraitzeko aukera malgututa hala nahi duten pertsonentzat. Gainera, handitu egin da lana eta erretiro partzialeko pentsioa uztartzearen aldeko iritzia duten pertsonen kopurua.